



**GORBEIALDEKO KUADRILLAKO  
BATZARREKO AKTA**

Murgian, 2020ko urriaren 19an, 18:00etan, legeak agindu bezala deialdia egin ondoren, Zuiako Udaleko bilkura-aretoan Kuadrillako Batzarraren ezohiko bilkura egin da.

Agustín Otsoa Eribeko Landa jauna buru dela eta Gorbeialdeko Kuadrillako gerente-letradua den Juan María Ezkurdia Salazar idazkari-lanetan ari dela, behean, abizenen arabera ordena alfabetikoan agertzen diren batzarkideak bildu dira:

**ACTA DE LA JUNTA DE CUADRILLA DE  
GORBEIALDEA**

En Murgia, siendo las 18:00 horas del día 19 de octubre de 2020, previa convocatoria cursada en forma legal, se celebra en el salón de reuniones del Ayuntamiento de Zuia, sesión extraordinaria de la Junta de Cuadrilla.

Preside la sesión el sr. Agustín Otsoa Eribeko Landa, actúa como secretario de la misma el gerente-letrado de la Cuadrilla de Gorbeialdea, Juan María Ezkurdia Salazar, y asisten las junteras y junteros que a continuación se relacionan por orden alfabético de apellidos:

**BATZARBURUA / PRESIDENTE**  
OTSOA ERIBEKO LANDA, AGUSTÍN

**BATZARKIDEAK / JUNTEROS-AS**  
ALONSO MORAZA, JUAN CARLOS  
ALTUNA UGARTE, LIERNI  
ARRANZ RUIZ DE AZUA, M.<sup>a</sup> ARANZAZU  
BALANTZATEGI BEITIA, SANTIAGO  
ELORZA BERGARA, INMA  
ETXEBARRIA ASTONDOA, ITXASO  
GANZABAL ZURBITU, M.<sup>a</sup> BEGOÑA  
GORBEÑA GARCÍA, JAVIER  
IBÁÑEZ GORROTXATEGI, ENEKO  
IRCIO VEA-MURGUIA, ITZIAR  
LÓPEZ DE BERGARA ASTOLA, IÑAKI  
PEÑA OROBENGOA, JUAN ANTONIO  
PÉREZ DE OBANOS OYARBIDE, PILAR  
ZUAZO ZUBERO, JON

**EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTEN BATZARKIDEAK / JUNTEROS/AS QUE HAN  
EXCUSADO SU ASISTENCIA**

ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA, XABIER  
ANTEPARA URIBE, M.<sup>a</sup> BLANCA  
GUTIÉRREZ URKIZA, UNAI  
TELLAETXE ZARANDONA, ESTÍBALIZ



Jarraian, Batzarburuak eman dio hasiera bilkurari, eta aurreikusitako gaitzerrenda jorratu da. Jarraian, erabaki hauek hartu dira:

**1.- 2020.02.19ko EZOHIKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA**

Presidenteak batzarkideei galdetu die oharren bat egin nahi duten aurreko aktarekin lotuta. Batzarkideek honako oharrak egin dituzte:

.- Santiago Balantzategi jaunaren bigarren abizena Beitia da, ez Ugarte.

.- Begoña Ganzabalen bigarren abizena Zurbitu da, eta ez García, 9.2 puntuan jartzen duen moduan.

.- Puntu berean, gaztelaniazko zutabea, "para ver cómo estaba la firma del maiatzaren 31ra arte de la tercera trabajadora social" jartzen duen lekuan, honakoa jarri behar du: "para ver cómo estaba la firma del convenio del año 2020 y la financiación de la tercera trabajadora social".

.- 4. puntuko 4. paragrafoaren bukaeran honako testua gehitu da: "astelehenetan eta ostiraletan, lehentasunez". Beraz, horrela geratu da: "Kuadrillaren gaiez arduratzeko, Kuadrillako eta beste erakundeetako langileekin bateragarria den ordutegian, astelehenetan eta ostiraletan, lehentasunez."

Beste inork hitza hartu ez duenez, akta onartu da, aipatutako zuzenketak eginda.

A continuación, se abre el acto al público por orden de la presidencia, y se trata el orden del día previsto, adoptándose los acuerdos que paso a reseñar.

**1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA DE FECHA 19.02.2020.**

El presidente pregunta a las junteras y junteros presentes si tienen alguna observación que hacer al acta de la reunión anterior, haciéndose las siguientes:

.- El segundo apellido del sr. Santiago Balantzategi es Beitia, y no Ugarte.

.- El segundo apellido de la sra. M<sup>a</sup> Begoña Ganzabal es Zurbitu, y no García como pone en el punto 9.2.

.- En el mismo punto, en la columna en castellano, donde pone "para ver cómo estaba la firma del maiatzaren 31ra arte de la tercera trabajadora social", debe poner "para ver cómo estaba la firma del convenio del año 2020 y la financiación de la tercera trabajadora social".

.- Se añade al final del párrafo 4 del punto 4 el siguiente texto: "preferentemente los lunes y los viernes", quedando así: "...con el fin de poder atender a los asuntos de la Cuadrilla en un horario que resulte compatible con el del personal de la entidad y con el de otras entidades públicas, preferentemente los lunes y los viernes."

Y no habiendo más intervenciones, queda aprobada el acta con las correcciones citadas.



**2.- 2019ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

2019. urteko Kontu orokorrak kontabilitateko instrukzioan jasota dauden agiriak ditu. Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 63. artikuluan xedatutakoaren arabera Kuadrillako presidentek prestatu behar du kontu hori.

Kontu orokor hori lehen aipatutako arautegiaren eta aplika daitezkeen gainerako xedapenen arabera egin da.

Kontu, eta Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen aldeko iritzia ikusita.

Kontu Orokorra aztertu ondoren, Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrak, bertaratutako 15 batzarkideak bat etorrira, honakoa **ERABAKI DU**:

**LEHENENGOA.-** 2019ko ekitaldiko kontu orokorra onartzea.

Aurrekoari kalterik egin gabe, eta ikusirik, otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 63 artikuluan aurreikusi bezala, jendaurrean ikusgai egoteko epea ez dela bukatu, Kontu, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen aldeko irizpena jaso duen Kontu Orokorrak erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik jasotzen badu, Batzar hau biltzea, horiekin lotuta egin beharrekoa zehaztu dezan.

**2.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA CUENTA GENERAL DEL EJERCICIO 2019.**

La Cuenta General del año 2019, que de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 63 de la Norma Foral 3/2004, de 9 de febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava, le corresponde elaborar al presidente de la Cuadrilla, contiene los documentos contemplados en la Instrucción de Contabilidad.

La mencionada Cuenta General ha sido confeccionada de acuerdo con la citada normativa y demás disposiciones aplicables.

Visto el dictamen favorable de la Comisión de Cuentas, y de Economía y Hacienda.

Analizada la Cuenta General, la Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea, con la unanimidad en el voto de sus 15 miembros presentes, **ACUERDA**:

**PRIMERO:** Aprobar la Cuenta General del ejercicio 2019.

Sin perjuicio de lo anterior, y dado que no ha transcurrido el plazo de exposición al público previsto en el artículo 63 de la Norma Foral 3/2004, de 9 de febrero, en caso de que se formulen reclamaciones, reparos u observaciones a la Cuenta General dictaminada favorablemente por la Comisión de Cuentas, y de Economía y Hacienda, reunirse esta Junta para determinar lo que proceda en relación con ellas.



Jendaurrean ikusgai egoten den bitartean halakorik ez balego, Erakunde honen Kontu Orokorra behin betiko onartutzat joko da.

**BIGARRENA.-** Ondasunen Inbentarioa zuzentzea, hala xedatzen baitu Toki Erakundeen Ondasunen Araudiak, 33. artikuluan.

**HIRUGARRENA.-** Arabako Foru Aldundiari eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari espedientearen kopia bana bidaliko zaie.

**3.- GORBEIALDEKO KUADRILLAREN ATXIKIMENDUA, ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORREKIN ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREKIN SINATU DITUEN LANKIDETZA-HITZARMENAREKIKO.**

Presidenteak jakinarazi du, Arabako Foru Aldundiak honakoa bidali diola Kuadrillari: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Estatuko Administrazio Orokorrarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin sinatutako administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko lankidetzaz hitzarmenei atxikitzeko protokoloa.

Bileraren eguna baino lehen, aipatutako dokumentuak Kuadrillako batzarkideei bidali zaizkie, aztertu ditzaten.

Si no las hubiera durante el período de exposición al público se entenderá aprobada definitivamente la Cuenta General de esta Entidad.

**SEGUNDO:** Rectificar el Inventario de Bienes en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 33 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.

**TERCERO:** Remitir copia del expediente a la Diputación Foral de Álava y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

**3.- ADHESIÓN DE LA CUADRILLA DE GORBEIALDEA A LOS CONVENIOS DE COLABORACIÓN PARA LA PRESTACIÓN MUTUA DE SOLUCIONES BÁSICAS DE ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA SUSCRITOS POR LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI CON LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DEL ESTADO Y CON LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA.**

El presidente informa que, desde la Diputación Foral de Álava, se ha remitido a la Cuadrilla el protocolo de adhesión a los convenios de colaboración para la prestación mutua de soluciones básicas de administración electrónica suscritos por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, tanto con la Administración General del Estado, como con la Diputación Foral de Álava.

Con anterioridad a la reunión se han remitido los documentos citados a los miembros de la Junta de Cuadrilla, para su conocimiento y examen.



Presidenteak esan du beharrezkoa dela Kuadrilla aipatutako hitzarmenetara atxikitzea, administrazio elektronikoa esparruko ondorengo zerbitzuetara sarbidea izan dezan:

- Euskal administrazio publikoetako komunikazio-sarea
- Identifikazio-, egiaztatze- eta sinadura elektronikorako baliabideen kudeaketarako zerbitzuak
- Euskadiko Administrazioen elkarrengarritasun eta segurtasun nodoa
- Ordainketen pasabidea

Aurrekoa azaldu ondoren, Gorbeialdeko Kuadrillaren Batzarrak, bertaratutako 15 kideen aho bateko botoarekin, **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA:** Gorbeialdeko Kuadrilla honakoei atxikitzeko eskatzea: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek 2017ko martxoaren 24an Estatuko Administrazio Orokorrekin eta 2018ko abenduaren 11n Arabako Foru Aldundiarekin sinatutako administrazio elektronikoko oinarritzko irtenbideak elkarri emateko lankidetzak-hitzarmenak.

**BIGARRENA:** Kuadrillako presidenteari gaitasuna ematea, hitzarmen hau gauzatzeko beharrezkoak diren garapen-jarduerak sinatzeko.

**4.- OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUAK ESKAINTZEKO, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN GIZARTE-POLITIKETARAKO SAILAREN ETA GORBEIALDEKO KUADRILLAREN**

Señala el presidente que es necesario que la Cuadrilla se adhiera a los convenios citados, para tener acceso a los siguientes servicios de administración electrónica:

- Red de comunicaciones de las administraciones públicas vascas
- Servicios de gestión de medios de identificación, autenticación y firma electrónica
- Nodo de interoperabilidad y seguridad de las Administraciones de Euskadi
- Pasarela de pagos

Expuesto lo anterior, la Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea, con la unanimidad en el voto de sus 15 miembros presentes, **ACUERDA:**

**PRIMERO:** Solicitar la adhesión de la Cuadrilla de Gorbeialdea a los Convenios de Colaboración para la prestación mutua de soluciones básicas de administración electrónica suscritos por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi el 24 de marzo de 2017 con la Administración General del Estado, y el 11 de diciembre de 2018 con la Diputación Foral de Álava.

**SEGUNDO:** Facultar al presidente de la Cuadrilla para la firma de cuantos actos de desarrollo sean precisos efectuar para llevar a cabo el presente acuerdo.

**4.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL DEPARTAMENTO DE POLÍTICAS SOCIALES DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA Y LA CUADRILLA DE**



## ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Gerente-letraduak esan du, hasiera batean, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako pertsonala finantzatzeko hitzarmenak Arabako Foru Aldundiaren eta Lurralde Historikoko zenbait udalen artean sinatu zirela. Gure Kuadrillan, Legutioko Udalarekin sinatu zen, eta eta gainerako udalak hitzarmen horretara atxiki ziren, Arratzua Ubarrundia kenduta, honek Lautadako zerbitzua jasotzen baitzuen.

Urte batzuk pasa ondoren, hitzarmen horiek zuzenean Kuadrillekin sinatzea komeni zela ikusi zen. Horregatik, Gorbeialdeko Kuadrillak bere gain hartu zuen Legutioko Udaleko gizarte langilearen kontratazioa.

Ondoren, Foru Arau bidez, Arabako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen zonifikazio berri bat onartu zen, eta Gorbeialdeko Kuadrilla zerbitzua emateko oinarrizko bi eremutan banatu zen: A, Murgian egoitza duena (Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuiako udalak) eta B, Legution egoitza duena (Aramaio, Arratzua-Ubarrundia eta Legutioko udalak). Eta zerbitzua bi gizarte langilerekin osatu zen, eta bakoitzak eremu baten ardura hartu zuen. Horrez gain, administrari laguntzaile baten lana partekatzen dute biek.

Hori ikusita, Arabako Foru Aldundiak eta Gorbeialdeko Kuadrillak hainbat hitzarmen sinatu dituzte, eta guztiek indarraldi mugagabea izan dute. Horrek oinarrizko gizarte-zerbitzuen egonkortasuna bermatu du, Kuadrilla eta, hedaduraz, udalak kontuan hartuta, Arabako Foru

## GORBEIALDEA PARA LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS SOCIALES DE BASE.

El gerente comenta que, inicialmente, los convenios para la financiación del personal de los Servicios Sociales de Base se firmaron entre la Diputación Foral de Álava y algunos ayuntamientos del Territorio Histórico. En nuestra Cuadrilla se firmó con el Ayuntamiento de Legutio, y el resto de ayuntamientos se adhirió al mismo, salvo Arratzua-Ubarrundia, que recibía el servicio desde La Llanada.

Pasados unos años, se consideró conveniente que esos convenios se firmaran directamente con las Cuadrillas. Por ello, la Cuadrilla de Gorbeialdea asumió la contratación de la trabajadora social del Ayuntamiento de Legutio.

Con posterioridad, se aprobó mediante Norma Foral una nueva zonificación de los Servicios Sociales de Base en Álava, y la Cuadrilla de Gorbeialdea se dividió en dos zonas de prestación básica del servicio: la A, con sede en Murgia (aytos. de Urkabustaiz, Zigoitia y Zuia) y la B, con sede en Legutio (aytos. de Aramaio, Arratzua-Ubarrundia y Legutio), y se conformó el servicio con dos trabajadoras sociales, una al frente de cada zona, y una auxiliar administrativa que comparten ambas.

A la vista de ello, la Diputación Foral de Álava y la Cuadrilla de Gorbeialdea han venido formalizando varios convenios, que han tenido todos ellos una vigencia indefinida. Ello ha garantizado una estabilidad en los Servicios Sociales de Base, al poder contar la Cuadrilla, y por



Aldundiak kostuaren % 80 inguruko finantzaketa egonkorra eman baitu.

Gerenteak adierazi du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen ondorioz egindako lege-aldaketen ondorioz, administrazio publikoen artean sinatutako hitzarmenek iraupen jakin bat izan behar dutela, gehienez ere lau urtekoa, arauz epe luzeagoa aurreikusten ez bada, eta gehienez ere beste lau urtez luzatu ahal izango direla.

Horren ondorioz, indarrean dauden hitzarmenak egokitzeko epea 2020. urte honetara arte luza zitekeen arren, Arabako Foru Aldundiak urteroko hitzarmenak sinatzea planteatu zuen, eta sail eskudunak jakinarazi zuen ezin zirela urtebetetik gorako hitzarmenak sinatu, ekarpen ekonomikoak Aldundiaren aurrekontuen 4. kapituluan (Transferentzia arruntak) jasota zeudelako.

Horregatik, 2019an, Kuadrillak eta Foru Aldundiak urte horretarako indarraldia soilik zuen hitzarmen bat sinatu zuten.

Egoera berri horrek eragozpen handiak sortzen ditu hain oinarrizkoa den zerbitzu batean. Horietako nagusia da Aldundian sinatzea adostu arte Kuadrillak ez dakiela urte horretan finantzazio hori jasoko duen. Beste eragozpen bat da bi aldeek hitzarmena sinatu arte Kuadrillak gastu osoari aurre egin behar diola ekarpen

extensión los ayuntamientos, con una financiación estable por parte de la Diputación Foral de Álava de en torno al 80% de su coste.

Comenta el gerente que, como consecuencia de cambios legales, a raíz de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, los convenios firmados entre administraciones públicas deben tener una duración determinada, que no puede ser superior a cuatro años, salvo que normativamente se prevea un plazo superior, con la posibilidad de prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales.

A raíz de esto, si bien el plazo de adaptación de los convenios en vigor podría haberse prolongado hasta este año 2020, la Diputación Foral de Álava planteó la firma de convenios anuales, informándose desde el Departamento competente que no se podían firmar convenios con una duración superior al año porque las aportaciones económicas estaban consignadas en el capítulo 4, Transferencias corrientes, de los presupuestos de la Diputación.

Por ello, ya en el año 2019 la Cuadrilla y la Diputación firmaron un convenio con vigencia únicamente para ese año.

Esta nueva situación plantea grandes inconvenientes en un servicio tan básico. El principal de ellos es que hasta que no se acuerda la firma en Diputación la Cuadrilla no sabe si ese año va a tener esa financiación. Otro de los inconvenientes es que hasta que no está firmado el convenio por ambas partes la Cuadrilla tiene que



partzialik jaso gabe. Izan ere, 2019an Kuadrillak kostuei aurre egin zien lehen hamaika hilabeteetan, abendura arte ez baitzen sinatu. Aurten, hitzarmena sinatu gabe dagoenez, egoera bera da, eta ez da ezer kobratu Aldundiaren ekarpenetik.

Horregatik, bai aurreko presidentek, bai oraingoak, hainbat aldiz bildu dira Sailaren ordezkariekin, urteroko hitzarmenak sinatzea ez den beste konponbideren bat posible den aztertzeko. Hala ere, orain arte ezin izan da halakorik lortu.

Halakorik ezean, hitzarmena sinatzea ahal den neurrian bizkortzeko eskatu zaie, ekitaldi bakoitzeke lehen hiru hilabetean onartuta egon daitekeen ikusteko.

Egoera azaldu ondoren, 2020rako hitzarmena, Kuadrillako Batzarrean onartzeko aurkezten dena, Diputatuen Kontseiluak onartu zuen abuztuaren 4an, eta, ondoren, Kuadrillara bidali zen irailaren amaieran.

Aurrekoa ikusirik, Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrak, bertaratutako 15 kideen aldeko botoarekin, **ADOSTU DU:**

**LEHENENGOA:** Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Sailaren eta Gorbeialdeko Kuadrillaren arteko lankidetzahitzarmena onartzea, 2020an oinarrizko gizarte zerbitzuak emateko.

hacer frente a la totalidad del gasto sin recibir aportaciones parciales. De hecho, en el año 2019 la Cuadrilla hizo frente a los costes durante los once primeros meses, porque hasta diciembre no se firmó. En este año, dado que el convenio no está firmado, la situación es la misma, y no se ha cobrado nada de la aportación de Diputación.

Por ello, tanto los anteriores presidentes, como el actual, se han reunido en varias ocasiones con representantes del Departamento, para ver si es posible otra solución que no pase por la firma de convenios anuales, si bien hasta la fecha no ha sido posible encontrarla.

En su defecto, se les ha solicitado que agilicen en la medida de lo posible la firma del Convenio, para ver si puede estar aprobado en el primer trimestre de cada ejercicio.

Expuesta la situación, el convenio para el año 2020, que es el que se presenta ante la Junta de Cuadrilla para su aprobación, fue aprobado por Consejo de Diputados de 4 de agosto, y remitido posteriormente a la Cuadrilla a finales de septiembre.

Expuesto lo anterior, la Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea, con la unanimidad en el voto de sus 15 miembros presentes, **ACUERDA:**

**PRIMERO:** Aprobar el convenio de colaboración entre el Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Álava y la Cuadrilla de Gorbeialdea para la prestación de servicios sociales de base, año 2020.



**BIGARRENA:** Kuadrillako Batzarraren une honetako epealdian (2019-2023) helburu bererako aurkezten diren hitzarmenak sinatzea onartzea.

Hori guztia, hurrengo hitzarmenak onartzeko izapideak arintzeko, eta, betiere, aurtengoan funtsezko aldaketarik egiten ez bada. Horretarako, lehendakariak urteko hitzarmena sinatu aurretik, batzordekide guztiei urteko hitzarmenaren zirriborroa bidaliko zaie, eta aldaketa nagusiak zein diren adieraziko zaie, baldin eta halakorik aurkezten bada.

**HIRUGARRENA:** Kuadrillako lehendakariari ahalmena ematea, akordio hau gauzatzeko beharrezkoak diren garapen-egintza guztiak egiteko.

**5.- GORBEIALDEKO KUADRILLAREN ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, EUSKARA SOZIALIZATZEKO PROGRAMETARAKO. 2020RAKO PROPOSATUTAKO PROGRAMAK (GORBEIAPEKO GAZTEAK, EUSKARAZI).**

Kuadrillako Batzarrean aurkeztu da Gorbeialdeko Kuadrillaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzahitzarmenaren proposamena, eskualdean euskara sozializatzen laguntzeko oinarriak ezartzeko.

Presidenteak adierazi du hitzarmenaren berrikuntza nagusia dela hitzarmenaren indarraldia lau urterako

**SEGUNDO:** Aprobar la firma de los convenios que con la misma finalidad se presenten durante el periodo de la actual Junta de Cuadrilla, 2019-2023.

Todo ello con la finalidad de agilizar los trámites de aprobación de los siguientes convenios, y siempre que no presenten modificaciones sustanciales al del presente año. Para ello, con anterioridad a la firma por la presidencia del convenio anual, se remitirá a todos los miembros de la Junta el borrador del convenio anual, indicándoles cuáles son las modificaciones principales que presenta, si es que las presenta.

**TERCERO:** Facultar al presidente de la Cuadrilla para la firma de cuantos actos de desarrollo sean precisos efectuar para llevar a cabo el presente acuerdo.

**5- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA CUADRILLA DE GORBEIALDEA Y LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA, PARA PROGRAMAS DE SOCIALIZACIÓN DE EUSKERA. PROGRAMAS PROPUESTOS PARA EL 2020 (GORBEIAPEKO GAZTEAK, EUSKARAZI).**

Se presenta ante la Junta de Cuadrilla para su aprobación la propuesta de convenio de colaboración entre la Cuadrilla de Gorbeialdea y la Diputación Foral de Álava, con la finalidad de establecer las bases para contribuir a la socialización del euskera en la comarca.

El presidente comenta que la novedad principal del convenio es que su vigencia se prevé para un periodo de cuatro



aurreikusten dela, eta urtez urte luzatu ahal izango dela, gehienez beste lau urtez. Presidenteak gaineratu duenez, hitzarmen hau sinatzeak egonkortasun handiagoa emango dio epe ertainean euskara sustatzeko jardueren finantzaketari, orain arte urtebeteko indarraldiko deialdi edo hitzarmenen mende baitzegoen.

Hitzarmenean adierazitakoaren arabera, bi aldeek urtero aztertu eta onartuko dute bi erakundeen arteko lankidetzaz zehaztuko duen jardueraren plana, garapena eta finantzaketa zehaztuta. Hori guztia dagokion urteko jardueraren planean islatuko da, zeina lankidetzaz-hitzarmenaren parte izango baita.

Ilde horretan, presidenteak adierazi du Kuadrillako euskara-teknikariak, Manex Agirre Arriolabengoak, 2020rako jardueraren programa bat prestatu duela, hitzarmenean aurreikusitakoaren babesean Aldundian aurkezteko.

Kuadrillako Batzarraren onarpenerako aurkeztu den programak honako ekintza hauek egitea aurreikusten du:

- 1.- GO!rbeia euskararen ginkana, 12 eta 16 urte arteko gaztetxoentzat.
- 2.- "Bertso abentura"; 10 eta 13 urte arteko umeentzat.
- 3.- "Bertsoa bizi gazte" programa, 14 eta 16 urte arteko gazteentzat.

Finantzaziorik dagokionean, hitzarmenaren proposamenean jasota

años, prorrogable por periodos anuales hasta un máximo de otros cuatro años adicionales. Añade el presidente que la firma de este convenio dará una mayor estabilidad a medio plazo a la financiación de actividades de promoción de euskera, que hasta ahora venía dependiendo de convocatorias o convenios con vigencia anual.

Según se indica en el convenio, por ambas partes se estudiará y aprobará anualmente el plan de actuación en que se concretará la colaboración entre ambas instituciones, con detalle de desarrollo y financiación. Todo ello se plasmará en el correspondiente plan de actuación anual que pasará a formar parte integrante del convenio de colaboración.

En este sentido, el presidente comenta que el técnico de euskera de la Cuadrilla, Manex Agirre Arriolagengoa, ha elaborado un programa de actividades para el presente año 2020, para su presentación ante Diputación al amparo de lo previsto en el Convenio.

El programa que se presenta ante la Junta de Cuadrilla para su aprobación contempla la realización de las siguientes acciones:

- 1.- GO!rbeia euskararen ginkana, para jóvenes entre 12 y 16 años..
- 2.- "Bertso abentura"; para niñas/os entre 10 y 13 años.
- 3.- Programa "Bertsoa bizi gazte" para jóvenes entre 14 y 16 años.

En cuanto a la financiación, en la propuesta de convenio se contempla una



dagoenaren arabera, Aldundiak urtero 7.000 euroko ekarpena egingo du, Kuadrillak urteko programan aurkezten dituen jarduerak gauzatu ditzan.

Hitzarmenaren edukia, berau sinatzeko arrazoiak, eta euskara teknikariak 2020 urterako aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gorbeialdeko Kuadrillaren Batzarrak, bertaratutako 15 batzarkideen aho bateko botoarekin, **ADOSTU DU:**

**LEHENENGOA:** Gorbeialdeko Kuadrillaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaz-hitzarmena, "Gorbeiapeko gazteak, euskaraz!" programa garatzeko helburua duena, onartzea.

**BIGARRENA:** 2020 urterako jarduera programa onartzea, euskara teknikariak proposatutako jarduerekin.

**HIRUGARRENA:** Kuadrillako presidenteari gaitasuna ematea, hitzarmen hau gauzatzeko beharrezkoak diren garapen-jarduerak sinatzeko.

## 6.- PRESIDENTZIAREN TXOSTENAK.

### 6.1.- 2019ko urteko aurrekontu orokorraren likidazioa.

Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeen aurrekontuak arautzen dituen otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 49.3 artikuluan azaltzen denez, tokiko erakundeko buruari dagokio likidazioa onestea, Kontu Hartzaitzari txostena bidali ondoren.

aportación de 7.000 euros anuales por parte de Diputación, para que la Cuadrilla lleve a cabo las acciones que se incluyan en cada programa anual.

Analizado el contenido del convenio, las razones que interesan su formalización, y las propuestas presentadas por el técnico de euskera para llevar a cabo durante el año 2020, la Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea, con la unanimidad en el voto de sus 15 miembros presentes, **ACUERDA:**

**PRIMERO:** Aprobar el convenio de colaboración entre la Cuadrilla de Gorbeialdea y la Diputación Foral de Álava, para desarrollar el programa Gorbeiapeko gazteak, euskaraz!.

**SEGUNDO:** Aprobar el programa de actividades para el año 2020 con las acciones propuestas por el técnico de euskera.

**TERCERO:** Facultar al presidente de la Cuadrilla para la firma de cuantos actos de desarrollo sean precisos efectuar para llevar a cabo el presente acuerdo.

## 6.- INFORMES DE PRESIDENCIA.

### 6.1.- Liquidación del presupuesto general del año 2019.

El artículo 49.3 de la Norma Foral 3/2004, de 9 de febrero, presupuestaria de las entidades locales del territorio histórico de Álava, señala que corresponderá a la presidencia de la entidad local, previo informe de la Intervención, la aprobación de la liquidación.



Hortaz, 2020ko martxoaren 31n, Kuadrillako batzarburuak 2019. urteko aurrekontu orokorraren likidazioaren espedientea onetsi du, eta haren emaitzen berri eman du:

**2019ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA (eurotan).**

(+) Likidatutako eskubide garbiak 1.369.924,12  
(-) Aitortutako obligazio garbiak 1.349.456,27

**(=) AURREKONTU ARRUNT ETA GORDINAREN EMAITZA 20.467,85**

(+) Diruzaintzako gerakinarekin finantzatut. gastuak. 0,00  
(-) 2019ko finantziazioko soberakinen batuketa 6.525,00  
(+) 2019ko finantziazioko eskasien batuketa 0,00  
(+) 2018ko finantziazioko soberakinen batuketa 2.713,20  
(-) 2018ko finantziazioko eskasien batuketa 0,00

**(=) DOITUTAKO AURREKONTU ARRUNTAREN EMAITZA 16.656,05**

(+) Ordaintzeko dauden obligazio baliogabetuak. 0,00  
(-) Kobratzeko dauden eskubide baliogabetuak. 11.059,27

**(=) AURREKONTU ITXIEN EMAITZA -11.059,27**

**(+) DOITUTAKO AURREKONTU ARRUNTAREN EMAITZA 16.656,05**

**(=) AURREKONTU ITXIEN EMAITZA -11.059,27**

**(=) 2019ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA 5.596,78**

**2019ko EKITALDIKO DIRUZAINZAKO GERAKINA Eurotan**

(+) Diruzaintzan dagoen eskudirua ..... 54.941,58  
(+) Aurrekontu arruntetik kobratzeko dauden eskubidea ..... 280.858,67  
(+) Aurrekontu itxietatik kobratzeko dauden eskubideak ..... 1.752,59  
(+) Aurrekontutik kanpo kobratzeko dauden eskubideak ..... 0,00  
(-) Aurrekontu arruntetik ordaintzeko dauden obligazioak ..... 139.501,25  
(-) Aurrekontu itxietatik ordaintzeko dauden obligazioak ..... 0,00  
(-) Aurrekontutik kanpo ordaintzeko dauden obligazioak ..... 42.997,91

De conformidad con lo expuesto, con fecha 31 de marzo de 2020, el presidente de la Cuadrilla ha procedido a la aprobación del expediente relativo a la liquidación del Presupuesto General del año 2019, dándose cuenta de los resultados de la misma:

**RESULTADO PRESUPUESTARIO DEL EJERCICIO 2019 (en euros).**

(+) Derechos liquidados netos 1.369.924,12  
(-) Obligaciones reconocidas netas 1.349.456,27

**(=) RESULTADO DEL PRESUPUESTO CORRIENTE BRUTO 20.467,85**

(+) Gastos financiados con Remanente de Tesorería 0,00  
(-) Suma de los excesos de financiación 2019 6.525,00  
(+) Suma de los defectos de financiación 2019 0,00  
(+) Suma de los excesos de financiación 2018 2.713,20  
(-) Suma de los defectos de financiación 2018 0,00

**(=) RESULTADO DEL PRESUPUESTO CORRIENTE AJUSTADO 16.656,05**

(+) Obligaciones pendientes de pago anuladas 0,00  
(-) Derechos pendientes de cobro anulados 11.059,27

**(=) RESULTADO PRESUPUESTOS CERRADOS -11.059,27**

**(+) RESULTADO DEL PRESUPUESTO CORRIENTE AJUSTADO 16.656,05**

**(+) RESULTADO PRESUPUESTOS CERRADOS -11.059,27**

**(=) RESULTADO PRESUPUESTARIO DEL EJERCICIO 2019 5.596,78**

**REMANENTE DE TESORERÍA DEL EJERCICIO 2019 Euros**

(+) Existencias efectivo en Tesorería ..... 54.941,58  
(+) Derechos pendientes de cobro del Presupuesto corriente..... 280.858,67  
(+) Derechos pendientes de cobro de Presupuestos cerrados..... 1.752,59  
(+) Derechos pendientes de cobro extrapresupuestarios ..... 0,00  
(-) Obligaciones pendientes de pago del Presupuesto corriente..... 139.501,25  
(-) Obligaciones pendientes de pago de Presupuestos cerrados..... 0,00  
(-) Obligaciones pendientes de pago extrapresupuestarias ..... 42.997,91



(=) DIRUZAINZAKO GERAKIN GORDINA .....	155.053,68
(-) Kobratzeko dauden eskubideak, kobratzeko zailak edo zalantzak direnak .....	0,00
(=) DIRUZAINZAZKO SOBERAKIN LIKIDOA .....	155.053,68
(-) DIRUZAINZAZKO-SOBERAKINA, ERAGINPEKO FINANTZAZIOAREN GASTUETARAKO .....	6.525,00
(=) GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAZKO GERAKINA.....	148.528,68

## 6.2.- Kuadrillako Oinarrizko Gizarte Zerbitzurako beste gizarte-langile bat kontratatzea.

Aurrekontu-arloan indarrean dagoen legeria 2019ko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen luzapena da, eta sektore publikoan langile berriak sartzeko 2018ko aurrekontuen legean ezarritako mugak eta baldintzak mantentzen ditu.

Gizarte-zerbitzuen erabiltzaileei zuzeneko laguntza ematen dieten langileen plaza dagokienez, legeak handitu egin du aurreko aurrekontu-legeetan ezarritako birjartze-tasa, eta administrazio publikoak aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak eta gastu-araua bete ez baditu ere, langile horien tasa, birjartze-tasaren ehuneko 100 da.

Kuadrillaren kasuan, kontua da ez dagoela birjartze-tasarik, azken urteetan ez baitago baja eman duen langilerik zerbitzuan. Beraz, gaur egun, ezinezkoa da LPZn lanpostu berri bat sortzea eta beste pertsona bat kontratatzea. Gerente-letratuak adierazi du egoera hori alda daitekeela 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorren lege berriarekin, nahiz eta

(=) REMANENTE DE TESORERÍA BRUTO .....	155.053,68
(-) Derechos pendientes de difícil o dudoso cobro.....	0,00
(=) REMANENTE DE TESORERÍA LÍQUIDO .....	155.053,68
(-) REMANENTE DE TESORERÍA PARA GASTOS DE FINANCIACIÓN AFECTADA.....	6.525,00
(=) REMANENTE DE TESORERÍA PARA GASTOS GENERALES.....	148.528,68

## 6.2.- Contratación de un/a nuevo/a trabajador/a social más para el Servicio Social de Base de la Cuadrilla.

La legislación vigente en materia presupuestaria, que es prórroga de la ley de presupuestos generales del estado del año 2019, mantiene las limitaciones y requisitos para la incorporación de nuevo personal en el sector público establecidos en la ley de presupuestos del año 2018.

En lo relativo a las plazas de personal que presta asistencia directa a los usuarios de los servicios sociales, la ley ha aumentado la tasa de reposición establecida en las anteriores leyes presupuestarias, y aún en el supuesto de que la administración pública no haya cumplido con los objetivos de estabilidad presupuestaria y deuda pública y la regla de gasto, la tasa de reposición de este personal es del 100 por cien.

En el caso de la Cuadrilla, la cuestión está en que no existe tal tasa de reposición, al no haberse producido ninguna baja de personal en el servicio en los últimos años. Por lo tanto, a fecha actual, no resulta posible crear una nueva plaza en la RPT y contratar a otra persona. El gerente-letrado comenta que esta situación puede cambiar con la nueva ley de presupuestos



oraindik ez dagoen onartuta.

Ganzabal Zurbitu andreak, Kuadrillako lehendakariordeak, esan du ez zekiela hori horrela zenik. Esan du Arabako landa-eremuko gizarte-zerbitzuen lan-kargei buruzko diagnostikoan, Aldundiak egindakoan, Gorbeialdeko Kuadrillako gizarte-zerbitzuko langileak lanaldi ertaineko gizarte-langile batekin indartzeko beharraz hitz egiten zela, eta urteak daramatzagula gai horrekin, eta herritarrentzako funtsezko zerbitzua dela.

Aurrekoa ikusita, bertaratutako pertsonak ados daude gaia aztertuko duen kanpo-txosten bat eskatzearekin, ikusteko ea posible den irtenbide bat aurkitzea legearen esparruan, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean jasotako murrizketak gainditzeko. Ildo horretan, gerente-letraduak esan du azter litekeela aldi baterako langileak kontratatzea baimenduta dagoen ala ez, bai eta aldi baterako estatutupeko langileak eta bitarteko funtzionarioak izendatzea ere, salbuespenetzko kasua dela irizita eta premia urgenteak eta atzeraezinak betetzeko.

Presidenteak adierazi du ados dagoela lehendakariordearekin oinarritzko gizarte-zerbitzua herritarrentzako funtsezko zerbitzua dela esatean, eta, horregatik, gizarte-langile berri bat kontratatzeko beharrezko urratsak ematen jarraitu behar dela.

**6.3.- Eskubide-aitortzarako demandak, Jon Toña Díaz eta Adolfo Moro Quintana**

Generales del Estado para el año 2021, si bien todavía no está aprobada.

La sra. Ganzabal Zurbitu, vicepresidenta de la Cuadrilla, comenta que desconocía esa cuestión. Comenta que en el Diagnóstico sobre las cargas de trabajo de los servicios sociales de la zona rural alavesa que hizo Diputación se hablaba de la necesidad de reforzar el personal del Servicio social de la Cuadrilla de Gorbeialdea con un/a trabajador/a social más a media jornada, y que llevamos años con este asunto, y que es un servicio esencial para la ciudadanía.

A la vista de lo anterior, las personas presentes se muestran favorables en solicitar un informe externo que analice la cuestión para ver si es posible encontrar una solución en el marco de la ley para salvar las restricciones contempladas en la Ley de Presupuestos generales del Estado. En este sentido, el gerente-letrado comenta que podría analizarse si se entiende permitida la contratación de personal temporal, así como al nombramiento de personal estatutario temporal y de funcionarios interinos por considerar que se trata de un caso excepcional y para cubrir necesidades urgentes e inaplazables.

El presidente comenta que está de acuerdo con la vicepresidenta en que el servicio social de base es un servicio esencial a la ciudadanía, y que por ello hay que seguir dando los pasos necesarios para llevar a cabo la contratación de un/a nuevo/a trabajador/a social.

**6.3.- Demandas en reconocimiento de derechos para declarar que las**



jaunek emandako zerbitzu-harremanak lan-kontratudun izaerakoak direla aitortzeko.

Presidenteak esan du aipatutako pertsonen lan-arloko epaitegian demandak aurkeztu dituztela Kuadrillako lan-kontratupeko langile gisa aitortzeko.

Gainera, beste eskaera batzuk "iristear" daudela gaineratu du.

Presidenteak uste du beharrezkoa dela udal bakoitzaren langile-premien diagnostiko osoa egitea, eta horren arabera ikusi behar dela ea Kuadrillak egin behar dituen kontratazioak, udalei laguntzeko, edo, aitzitik, udalek beraiek kontratatu behar dituzten langileak, dedikazio handia behar dutelako.

Presidenteak adierazi du gai hau sakonago aztertzeko beharrezkoa ikusten duela lantalde bat sortzea, Kuadrillako lehendakariak eta alkateek edo udalek egokitzen jotzen dituztenek osatua.

Begoña Ganzabal Zurbitu andrearen esanetan, aurreko demandetako Kuadrillaren defentsa juridikoa udalek ordainduko dute aurreko demandetan. Lehendakariak erantzun dio Arabako Foru Aldundiko aurreko Lurralde Oreka zuzendariaren hitzeko konpromisoa zegoela, gastuen kargu Foru Aldundia egingo zela esaten zuena, baina hori aurreko legegintzaldiaren bukaeran izan

relaciones de servicios prestados por los sres. Jon Toña Díaz y Adolfo Moro Quintana son de naturaleza laboral.

El presidente comenta que las personas citadas han presentado demandas en el juzgado de lo social para su reconocimiento como personal laboral de la Cuadrilla.

Añade que, además, hay otras demandas que están "al caer", según le han comentado.

Considera el presidente que es necesario hacer un diagnóstico completo de las necesidades de personal de cada ayuntamiento, y en función de eso ver si las contrataciones las debe hacer la Cuadrilla, en apoyo de los ayuntamientos, o si, por el contrario, deben ser los propios ayuntamientos los que tienen que contratar el personal porque necesitan de una amplia dedicación.

El presidente comenta que para tratar este tema con más profundidad ve necesario crear un grupo de trabajo integrado por la presidencia de la Cuadrilla y por alcaldes y alcaldesas, o quienes consideren oportuno los ayuntamientos.

La sra. Begoña Ganzabal Zurbitu comenta que la defensa jurídica de la Cuadrilla en las anteriores demandas la van a pagar los ayuntamientos. El presidente le responde que existía el compromiso verbal del anterior director de Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Álava de que iba a ser dicha entidad quien corriera con los gastos, pero que eso fue a finales de la anterior legislatura y que, planteada la



zela, eta zuzendari berriari gaia aipatu zaionean, honek erantzun duela Aldundia ez dela gastu horien kargu egingo.

Bertaratutako hainbat pertsonak adierazi dute komenigarria litzatekeela lanpostuen balorazioa egitea eta, balorazioa ikusita, udaletako langile-premiei buruzko diagnostikoarekin batera, Kuadrillako plazak erregularizatzen hastea.

Hori ikusita, Kuadrillako lanpostuen balorazioa egiteko aurrekontu bat eskatzea erabaki da, eta zenbatekoaren arabera, dagokion lizitazio-prozedura deitzea.

Kuadrillak ez duenez kontratazioa gauzatzeko aurrekontu-eseleipenik, bertaratutako pertsonak ados daude kontratazioa udaletatik datozen diru-sarreraren kargura gaitzearekin.

#### **6.4.- zuntz optikoa zabaltzea Gorbeialdeko Kuadrillan.**

Presidenteak adierazi du Kuadrillako hainbat udalerrik ez dutela oraindik zuntz optiko bidezko konexiorik edo banda zabaleko beste konexiorik.

Hori dela eta, Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari idazki bat bidaltzea proposatu du, banda zabala oraindik ez duten Kuadrillako toki guztietara irits dadin.

Bertaratutakoak ados daude idazkia bidaltzearekin.

cuestión al nuevo director, éste le ha respondido que la Diputación no se va a hacer cargo de dichos costes.

Varias de las personas presentes expresan que sería conveniente hacer una valoración de puestos de trabajo y que, a la vista de la misma, junto con el diagnóstico sobre las necesidades de personal de los ayuntamientos, se empezara a regularizar las plazas de la Cuadrilla.

A la vista de ello, se acuerda que se solicite un presupuesto para realizar la valoración de puestos de trabajo de la Cuadrilla, y en función del importe convocar el oportuno procedimiento de licitación.

Dado que la Cuadrilla no dispone de consignación presupuestaria para llevar a efectos la contratación, las personas presentes están de acuerdo en habilitarla con cargo a ingresos provenientes de los ayuntamientos.

#### **6.4.- Despliegue de la fibra óptica en la Cuadrilla de Gorbeialdea.**

El presidente comenta que varias localidades de la Cuadrilla no disponen aún de conexión mediante fibra óptica u otro tipo de conexión de banda ancha.

Por ello, propone remitir un escrito a Diputación Foral de Álava y a Gobierno Vasco, instándoles a que hagan lo necesario para que llegue la banda ancha a todos los lugares de la Cuadrilla que aún no la tienen.

Las personas presentes están de acuerdo en remitir el escrito.



## 6.5.- parke mikologikoa.

Lehendakariak adierazi du gai honetan esperientzia duen pertsona bat Kuadrillara joan dela Gorbeia aldean parke mikologiko bat sortzeko proposamena egitera.

Lurralde-eremua ikusita, hasiera batean, proposamena Kuadrillako udalerrri batzuei zuzenduta egongo litzateke lehenatasunez. Hala ere, batzarra osatzen duten udal guztietako batzarkideek interesa agertu dutenez, presidentek azaldu du sustatzailearekin eta Kuadrillako udalerrri guztietako ordezkariekin geratuko dela proiektua sakonago ezagutzeko.

## 7.- JAKINARAZPEN OFIZIALAK.

**7.1. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (20-04-30):** 2020ko martxoaren 27ko Aginduaren bidez, jakinarazi zuten 20.640 euro eman zituztela 2020an artxibo-sistema mantentzeko.

**7.2. AFAREN Ogasun, Finantza eta Aurrekontu saila (20-05-06):** TEFFF-ren 2. hiruhilekoaren ordainketaren berri eman dute.

**7.3. AFAko Lurralde Oreka Saila (2020-05-25):** Foru Gobernu Kontseiluaren 186/2020 Erabakia bidali dute, apirilaren 21ekoa, 2020. urteko FOFELen hasierako behin betiko partaidetzak onartzen dituen.

**7.4. AFAko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenerako Saila (2020-06-03):** jakinarazi dute Foru Gobernuaren Kontseiluaren ekainaren 2ko 227/2020

## 6.5.- Parque micológico.

El presidente comenta que una persona con experiencia en el tema se ha dirigido a la Cuadrilla para hacer una propuesta de creación de un parque micológico en la zona del Gorbeia.

Visto el ámbito territorial, en términos iniciales la propuesta iría dirigida preferentemente a algunos municipios de la Cuadrilla. No obstante, dado el interés mostrado en la reunión por junteras y junteros de todos ayuntamientos que la integran, comenta el presidente que va a quedar con el promotor y con representantes de todos los municipios integrados en la Cuadrilla para conocer más a fondo el proyecto.

## 7.- COMUNICACIONES OFICIALES.

**7.1. Dpto. de Cultura y Política Lingüística de G.V. (30-04-20):** Mediante Orden de 27 de marzo de 2020, comunican la concesión de 20.640 euros para el mantenimiento del sistema de archivo durante el año 2020.

**7.2. Dpto. Hacienda, Finanzas y Presupuesto de la D.F.A. (06-05-20):** Informan del abono del 2º trimestre del FOFEL.

**7.3. Dpto. de Equilibrio Territorial de la D.F.A. (25-05-20):** Remiten Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral nº 186/2020, de 21 de abril, por el que se aprueban las participaciones iniciales definitivas del FOFEL año 2020.

**7.4. Dpto. de Fomento de Empleo, Comercio y Turismo de la D.F.A. (03-06-20):** Comunican que mediante Acuerdo 227/2020, del Consejo de Gobierno Foral de



Erabakiaren bidez ondorioz gabe uzten dela, gerora sortutako arrazoiengatik, enplegurako prestakuntzarako 2020rako laguntzen deialdia.

**7.5. AFAko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenerako Saila (20-06-19):** jakinarazi dute, Gobernu Kontseiluaren ekainaren 9ko 238/2020 Erabakiaren bidez, eraginik gabe uzten dela 2020ko ekitaldirako turismoa sustatzeko jarduerak egiteko laguntzen deialdia.

**7.6. AFaren Lurralde Oreka Saila (20-07-20):** Foru Diputatuaren uztailaren 14ko 106/2020 Foru Aginduaren bidez, 43.200 euroko diru-laguntza eman zitzaion Kuadrillari, aurreko urteetan 54.000 euro eman beharrean, 2020an jarduerak sortutako gastuak baldintzarik gabe finantzatzeko.

**7.7. SAILA AFAko bide-azpiegiturak eta mugikortasuna (2020-07-31):** Durana herrian informazio-kartela lekuz aldatzeko baimena eman dute.

**7.8. Jon Toña Díaz (20-08-03):** Gorbeialdeko Kuadrillarekin lan-harremana aitortzeko eskaera.

**7.9. Legutioko Udala (20-08-17):** Ingurumen teknikariak irailean eta urrian udalean zerbitzuak ematen jarrai dezala eskatzen du.

**7.10. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saila (20-08-19):** Gorbeialdeko Kuadrillako hauteskunde sindikalen aurreabisua sail horretan sartu dela jakinarazi da.

**7.11. Vitoria-Gasteizko Lan Arloko Epaitegia (20-09-25):** Adolfo Moro Quintanak aurkeztutako demandaren ondoriozko zitazio judiziala bidali dute, Kuadrillarekiko lan-harremana aitortzeko eskatuz.

2 de junio se deja sin efecto por causas sobrevenidas la convocatoria de ayudas para la formación para el empleo para el año 2020.

**7.5. Dpto. de Fomento de Empleo, Comercio y Turismo de la D.F.A. (19-06-20):** Comunican que mediante Acuerdo 238/2020, del Consejo de Gobierno de 09 de junio se deja sin efecto la convocatoria de ayudas para la realización de actividades de promoción turística para el ejercicio 2020.

**7.6. Dpto. de Equilibrio Territorial de la D.F.A. (20-07-20):** Mediante Orden Foral 106/2020, de 14 de julio, de la Diputada Foral se concede una subvención de 43.200 euros a la Cuadrilla, en lugar de los 54.000 euros como años anteriores, para la financiación incondicionada de los gastos generados por su actividad en 2020.

**7.7. Dpto. Infraestructuras viarias y Movilidad de la D.F.A. (31-07-20):** Autorizan el cambio de ubicación del cartel informativo en la localidad de Durana.

**7.8. Jon Toña Díaz (03-08-20):** Solicitud de reconocimiento de relación laboral con la Cuadrilla de Gorbeialdea.

**7.9. Ayuntamiento de Legutio (17-08-20):** Solicita que el técnico de medio ambiente continúe prestando sus servicios en el ayuntamiento durante los meses de septiembre y octubre.

**7.10. Dpto. de Trabajo y Justicia de G.V. (19-08-20):** Se notifica la entrada en ese departamento del preaviso de elecciones sindicales en la Cuadrilla de Gorbeialdea.

**7.11. Juzgado de lo Social de Vitoria-Gasteiz (25-09-20):** Remiten citación judicial por la demanda interpuesta por Adolfo Moro Quintana solicitando reconocimiento de relación laboral con la Cuadrilla.



**7.12. Legutioko Udala (20-09-28):** Ingurumen teknikariak 2020ko azarotik 2021eko otsailera arte udalean zerbitzuak ematen jarraitzeko eskatzen du.

**7.13. Zuiako Udala (2020-10-13):** 225/2020 Alkatetza Dekretua bidali dute. Horren bidez, kuadrilla honi bere egoitza berria okupatzeko lizentzia eman zaio.

**7.14. Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila (20-10-15):** urriaren 14ko Ebazpena bidali dute; horren bidez, 53.216,20 euroko diru-laguntza eman dute 2020. urtean turismoa sustatzeko jardueretarako.

**7.15. AFAko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saila (2020-10-19):** ebazpena bidali dute; horren bidez, 52.000,00 euroko diru-laguntza eman dute 2020. urtean turismoa sustatzeko jardueretarako.

#### 8.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez daude.

Beste gairik ez dagoenez, Kuadrillako presidentek amaitutzat eman du bilera, goiburuan adierazitako eguneko 19:10ean.

**7.12. Ayuntamiento de Legutio (28-09-20):** Solicita que el técnico de medio ambiente continúe prestando sus servicios en el ayuntamiento desde noviembre 2020 hasta febrero 2021.

**7.13. Ayuntamiento de Zuia (13-10-20):** Remiten Decreto de Alcaldía nº 225/2020, por el cual se concede a esta cuadrilla la oportuna licencia de ocupación para la nueva sede de la misma.

**7.14. Dpto. de Turismo, Comercio y Consumo de G.V. (15-10-20):** Remiten Resolución de 14 de octubre por la cual se concede una subvención de 53.216,20 euros para actividades de promoción turística durante el año 2020.

**7.15. Dpto. de Fomento del Empleo, Comercio y turismo y de Administración Foral de D.F.A. (19-10-20):** Remiten resolución por la cual se concede una subvención de 52.000,00 euros para actividades de promoción turística durante el año 2020.

#### 8.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

No se formulan.

No habiendo más asuntos que tratar, el presidente de la Cuadrilla da por terminada la sesión, siendo las 19:10 h, del día indicado en el encabezamiento.